

LITERATURA. 'Zaldiko-maldikoan' poema liburua argitaratuko du Aizkorrik, bere bosgarren urteurrena ospatzeko

Aizkorrik haur eta gazteentzako sei liburu berri eman ditu argitara

Beldurra, barne zalantzak, gurasoen banaketa eta beste hainbat gai jorratzen dira horietan

Arantxa Elizegi | DONOSTIA

Sei liburu berri argitaratu ditu Aizkori argitaletxeak: Juan Kruz Igerabideren *Jonas Larri*, Patxi Zubizarretaren *Gaspar eta zuhaitzak*, Seve Callejaren *Txakur berde baten istorioa*, Andrew Clementsek idatzi eta Idoia Gilleneak itzultitako *Frindela*, Juan Luis Mugertzaren *Astoari konfiturak* eta Fernando Morilloren *Izar-malkoak*. Sei liburu horiek haur eta gazte literaturan sailkatu dituzte Aizkorri argitaletxeak arduradunek.

Aizkorriren bosgarren urteurrena dela eta, *Zaldiko-maldikoan* kaleratuko du laster argitaletxeak. Bertan, Bernardo Atxaga, Antton Kazabon, Karlos Linazasoro, Ana Urkiza eta Miren Agur Meabek hartu dute parte, besteak beste.

Igerabidek Jonas protagonista duen laugarren liburua kaleratu du Mendi Sorgindua sailean. Azken ale horretan, mutikoak txokolatezko arrautza bat lapurtzen du, eta horrek kinka larrian jartzen du protagonista. Idazleak liburuaren aurkezpenean azaldu zuenez, hiru-lau urteko haurrak bere lehen arazo etikoa konpondu beharko du.

Sail berean beste hiru liburu kaleratu ditu Aizkorrik, *Gaspar eta zuhaitzak*, *Txakur berde baten istorioa* eta *Frindela*. Lehenengoan mutiko baten beldu-



Idoia Gillenea, Juan Luis Mugertza, Juan Kruz Igerabide, Fernando Murillo eta Patxi Zubizarreta.

rrak kontatzen ditu Patxi Zubizarretak. Protagonista «arraro samarra» zela esan zuen Zubizarretak. Bere esanetan, «lan honetan eguneroko gauzak kontatzen dira, baina oso era berezian, beldur den haur baten ikuspegitik kontatzen baitira».

Idoia Gilleneak itzuli du *Frindela* eleberria, eta berak azaldu zuen izenburuaren arrazoiak: «*Frindela* da liburuiko protagonistak boligrafoari ematen dion izen berria». Liburuan, pertso-

naia horrek hitza zabaltzeko egiten duen borroka kontatzen da. Mutikoak bere ahalegin guztiak egingo ditu bere helburua lortzeko, eta, azkenean, horien emaitza jasoko du.

Gazte literaturako bi liburu

Bi herritarrek bizikleta bat erosteko hiriburura egiten duten bidaia kontatzen du Mugertzak bere *Astoaren konfiturak* eleberrian. Horretarako, Elgoibarren galtzeak dagoen hitanoa erabili

du idazleak. Bestalde, hiritar eta herritarren arteko desberdintasunak ere azpimarratu nahi izan ditu Mugertzak lan honekin.

Fernando Morillok, berriz, bi bideen artean aukeratu beharrean dagoen mutil baten istorioa kontatzen du *Izar-malkoak* liburuan. Protagonistak bi neska ezagutuko ditu, zintzoa bata eta misteriotsua bestea. Buruak zintzoarengana bultzatuko du, baina berak nahiago izango du bihotzaren esana obeditzea.

Ixaka Lopez Mendizabal gogoratuko dute Tolosan, ostirala bitartean

Erredakzioa | DONOSTIA

Ixaka Lopez Mendizabal gogoratzeko, hainbat ekitaldi egingo dira datozen egunetan Tolosan. 25 urte dira aurtan Ixaka Lopez-Mendizabal tolosarra hil zela, eta Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu: bere lanari eta berari buruzko erakusketa bat dago kultur etxean atzotik bihar arte; ostiralean, Lopez Mendizabalen jaiotetxean, Ballastegi Enea (Solana 6), plaka bat bistaratzeko dute arratsaldeko zazpitan; eta ordu erdi ondoren mahai-ingurua egingo da kultur etxean, Xabier Lopez Mendizabal, Ramon Labaien, Aita Joseba Gogorza eta Antton Izagirrenen parte hartzearekin.

Ixaka Lopez-Mendizabal 1879ko apirilaren 11n jaio zen, eta 1997ko otsailaren 27an hil. Filosofia eta Letretan eta Zuzenbidean lizentziatu eta doktoregoa lortu zuen, eta errepublika garaian abokatu lanetan ibili zen, Tolosako epaitegian fiskal izatera iristeraino.

Bere aita hil zenean, aitona 1750ean Tolosan sortutako inprenta bere gain geratu zen, eta beste inon argitaratzen ez ziren hainbat lan argitaratu zituen.

Kezka politikoak ere bazituen, eta EAJko kide izan zen: Tolosako zinegotzia eta Euskadi Buru Batzarreko lehendakari karguak bete zituen, hain zuzen. Argentinara erbesteratu zen 1936an, eta han Laurak Bat elkartearen lehendakaria izan zen, musika eta euskal irakaskuntzaren inguruan lan asko eginez. Lopez-Mendizabal 1966an itzuli zen Argentinatik Tolosara.

Euskararen alde lanean

Euskal irakaskuntzaren beharrek kezka handia sortzen zioten, eta *Martin Txilibitu* eta *Zenbakitzia* liburuak idatzi zituen, besteak beste. Erlijio gaietako lanak ere egin zituen, *Amairu Martizenak* kasu, eta gramatikaz ere jardun zuen, adibidez, *Gramatika vasca abreviada*.

Joseba Arruti kazetariak idatzi duen Stalinen biografia argitaratu du Elkarrek

A. Elizegi | DONOSTIA

Datorren urtean, Stalin hil zela 50 urte beteko dira, eta, mende erdia igaro bada ere, askok gogoan dute oraindik. Gurean, ordea, ez da hain ezaguna estatuburu horren bizitza, eta, horregatik, Elkar etxearen laguntzarekin Joseba Arruti kazetariak Stalinen biografia argitaratu du.

Stalin ez da Arrutiren lehen liburua, argitaletxe berarekin Churchillren biografia ere kaleratu baitzuen.

Atzo Donostian eskainitako prentsurrekoan Mikel Aramendi kazetariak adierazi zuenez, «Stalini buruzko liburu

asko idatzi dira orain arte, baina gehienak bere aurkako jarrerak bultzatuta». Horregatik, Aramendik biografia historikoak idazten hasteko beharra azpimarratu zuen, eta, bere esanetan, «Arrutik eman du helburu hori lortzeko lehen pausoa».

Aspaldiko proiektua

Duela hiru urte sortu zitzaion Arrutiri Stalini buruzko liburu bat idazteko aukera, baina, lan arazoak direla eta, ezin izan du orain arte kaleratu. Arrutik atzoko prentsurrekoan aitortu zuenez, «zailena aurreiritzi ideologikoak alde batera uztea izan da, idazleak beti baitu



Joseba Arruti idazlea bere azken liburuaren aurkezpenean.

idazten ari denari buruzko iritzia, eta hori testuan ikusi egiten da». Horrez gain, Stalini buruz dagoen materiala nahiko urria dela ere esan zuen. Arrutiren arabera, «horiek oztopo handiak izan dira lan hau egin ahal izateko».

Liburua bi zatitan dago banatua: boterera iritsi aurreko garaia eta ezezagunena lehenik; eta estatuburu izatera iritsi zen garaia bigarrenik. Lan honetan, estatuburu ezagunaren hainbat argazki ere jasotzen dira.